

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura negoziatua publizitatearekin.

**“SANCTI SPIRITUS” ZAHARREN EGOITZAN ARRETA PSIKOSOZIALA ETA
ARRETA BIOSANITARIOAREN ZERBITZU KONTRATUEN ADMINISTRATIO-
BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PUBLIZITATEZKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA**

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: “Sancti Spiritus” Udalaren Zaharren Egoitzako bezeroentzako Arreta Psikosozialaren zerbitzua eta Arreta Biosanitarioaren zerbitzua ematea.

- Arreta Psikosozialaren zerbitzua: Zaharren Egoitzako bezeroen arreta psikologikoa eta dinamizazio soziokulturalaren zerbitzua.
- Arreta Biosanitarioaren zerbitzua: Zaharren Egoitzako bezeroen errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoaren zerbitzua.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedienteaz azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. EPEA

Zerbitzua emateko epea urte batekoa izango da, 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31rarte.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 77.487,00 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 6.198,96 €-koa da.

Eskaintzak ordu prezioaren arabera egingo dira. Ondoren zehazten dira zerbitzu bakoitza prestatzeko beharrezko orduak eta ordu bakoitzeko oinarritzeko prezioa:



- Arreta Psikosoziala zerbitzua: Arreta Psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala: 7,5 ordu egunean, astelehenetik barikura.
Kontratatu da zerbitzu hau era honetan bananduko da: Arreta psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala jardunaldiaren bi zati bardenetan.

Ordu bakoitzako oinarritzko prezioa:

- Arreta Psikologikoa: 26,1 € orduko BEZ barik, BEZari 2,09 € dagokio.
 - Dinamizazio soziokulturala: 18,31 € orduko BEZ barik, BEZari 1,46 € dagokio.
- Arreta Biosanitarioaren zerbitzua: Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa: 7,5 ordu egunean, astelehenetik barikura.

Kontratatu da zerbitzu hau era honetan emongo da: errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa jardunaldi osoan zehar.

Ordu bakoitzako oinarritzko prezioa:

- Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa: 18,31 € orduko BEZ barik, BEZari 1,46 € dagokio

4. FINANTZIAZIOA

Zerbitzua 2015. urteko ekitaldiko aurrekontuaren kontura egingo denez, 2015eko aurrekontuan behar besteko diru-kopurua aurreikusteari baldintzatuta dago esleipena.

5. NOLA ORDAINDU

Ordainketa HILERO egingo da, esleipendunak aurkezten duen faktura Patronatuak onartu ondoren eta hurrengo 30 egunen barruan.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %3 artekoa izango da, BEZ kanpo, (2.324,61 €). Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.



Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dela eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia irizita enpresa horri informazioa eskatzen bazaio eta berak erantzuten ez badu, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi duela uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu duela eta ezin lezakeela bete aitortzen badu, gauza bera uste izango da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan eman beharko da zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritik. Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera daike.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratua Ongizate Patronatuaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Ongizate Patronatuak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

***Enpresa esleipendunaren langileen subrogazioa:** 1. Zerbitzu hau errepikatzen denez eta hori ematean parte hartzen duen pertsonalaren lan-egonkortasuna bermatze aldera, enpresa esleipendunak langileen subrogazioa bermatuko du, gaiaren inguruan sektoreko hitzarmenek esaten dutena albo batera utzita. Subrogazio klausula kasu hauetan bakarrik aplikatuko da:

- a) Lan-kontratua daukan eta kontratua egiten duen erakundearentzat azken sei hilabetean gutxienez lan egin duen langileari bakarrik eragingo dio subrogazioak. Ordezkapenak ere sartuko dira, amaitu arte.
- b) Subrogazioak ez die eragingo kontratua lagatzen duen enpresako jabeei, akziodunei, zuzendaritzako kideei, bitarteko karguei eta jabe, akziodun, zuzendaritzako kide eta bitarteko kargu horien bigarren mailako familiartekoak (UDALHITZ).

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezko arloan indarrean dauden legezkako xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Enpresa Jardueren



Koordinaziorako betekizunak bete beharko ditu (I. eranskina). Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Zerbitzuak emoten jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, Patronatuari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Patronatuak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurrii buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharrez, lanbide betebeharrak eta betebehar deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin dauzkan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren berme legez, II. eranskin legez agertzen dan konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badu datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau hausteak egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailezat joko da, eta erantzun beharko dizkie berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu daiekizan erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen jakezan kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.



10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADEUTSEZ.

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da.

Herri-onurako arrazoiak direla eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuaren V. tituluko kasuetan ematen diren kontratu aldaketetan, kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, Errege Dekretu Legegilearen 219. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

12. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea den zerbitzua amaitzean, esleipendunak emondako zerbitzuari buruzko txosten edo memoria aurkeztu beharko dau.

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-eperik aurreikusten.

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (212. artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.



B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (212.7 art).

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308 artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 309. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. LIZITAZIO IRAGARKIA

- a) Prozedura negoziatua 170. artikulua a) eta b) atalean, 171. Artikuluaren a) atalean eta 174. Artikuluaren a) atalean arautzen diren arrazoiengatik erabiltzen bada, kontratazio organoak lizitazio iragarki bat publikatu beharko du udal web orrialdean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.
- b) Prozedura negoziatua zenbatekoari begira erabiltzen bada (155.d), 156.b), 157.f), 174.e) eta 175) eta kontratuaren prezioa 60.000 €tik gorakoa bada edo obra kontratuaren prezioa 200.000 €tik gorakoa bada, kontratazio organoak lizitazio iragarki bat publikatu beharko du udal web orrialdeko Kontratugilearen profila atalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Hala ere, Kontratugilearen profilean egindako iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizizlean egin beharrekoa ordeztu ahal izango du SPKLTBren 142.7 artikuluaekin bat etorritik.

Ez da lizitazio- iragarkirik publikatuko prozedura negoziatua erabiltzen denean aurreko prozeduretan eskaintza irregularrak edota onartezinak aurkeztu direlako.

Bestalde, 142.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazio iragarkiak, halaber,



kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. 177.2 artikuluan aurreikusitako prozedura negoziatua jarraitzen denean, publizitate honek "Estatuko Aldizkari Ofizialean" edo autonomia erkidegoetako edota probintzietako aldizkari ofizialetan egin beharrekoa ordeztu ahalko du.

17. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena publizitateagazko prozedura negoziatu bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 163-168. artikuluetan bat etorritz.

Kontratazio prozedura honetan fase bi egongo dira:

- a) Lehenengo fasean, lizitazioan parte hartzeko hautagaiak aukeratuko dira, hautagai horiek parte hartzeko eskabidea egin eta gero. Lehenengo hautaketa hori egiteko, hautagaien kaudimena baloratuko da. Kaudimena administrazio-baldintza zehatzen orri hauetako 18. puntuan xedatutakoaren bitartez kreditatuko da.
- b) Bigarren fasean kontratuaren esleipenduna aukeratuko da, baldintza-agiri honen 19. puntuan zehatzen diren esleipen erizpideetan oinarrituta

Zerbitzua emoten jardungo dauan enpreseak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

Administrazio-baldintza zehatzen orri hauetako 19. puntuan esleipenerako erizpide bezala ezarritako edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomiko frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta 78. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten bitarteko kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.



Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

19. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150. artikulua xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

1. Eskaintza ekonomikoa: 30 punturarte baloratuko da. Alderantzizko hiruko erregela erabiliko da diru proposamenean.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoak: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 50 punturarte baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira. (Proposamen teknikoa, Bermeoko beharizan eta errealitatearen arabera izan beharko da. Txosten honek, ekintza, esku hartze eta sare sozialarekin egingo dan koordinazioa azaltzen dauan programa zehaztua euki behar dau).
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 5 puntu, gehienez 20 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).

20. LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA AURKEZTEA

Kontratazio honen baldintza plegu tekniko-administratiboak, Bermeoko Udalaren web orrialdean eta honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango dira:

LEKUAK:

- Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua: Areilza 4 (09:00-14:00). Astelehenetik barikura

- [BERH@Z](#) BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO
Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00.
Larunbatetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Lizitazioan parte hartzeko eskariak ondorengo lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu ahal izango dira:

LEKUAK:

- Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua: Areilza 4 (09:00-14:00). Astelehenetik barikura

- [BERH@Z](#) BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO
Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00.



Larunbatetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

EPEA: 10 egunetan iragarkia publikatzen denetik.

Lizitazioan parte hartzeko eskariarekin, lehiatzaileek kartazal bakarra aurkeztu beharko dabe (A kartazala). Horretan testu hau idatziko da: “SANCTI SPIRITUS UDALAREN ZAHARREN EGOITZAKO BEZEROENTZAKO ARRETA PSIKOSOZIALAREN ZERBITZUA ETA ARRETA BIOSANITARIOAREN ZERBITZU XEDE DAUKAN KONTRATAZIOAREN LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA”. Kartazal horretan ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:
 - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
 - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeko debekurik ez duela aitortzea (IV. Eranskina).
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VIII. Eranskina).
- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VII. Eranskina).
- h) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.
- i) Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena eman badago, a) b) c) eta d) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden



zinpeko aitorpena (VI. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, errekerimendua jaso eta gero, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Errekerimendua jasoten dauan parte hartzaileak 10 eguneko epea izango dau hori egiteko.

21. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lehenengo fasean hautatuak izan direnei, gonbitea bidaliko zaie gonbitean bertan adierazitako epean proposamenak aurkez ditzaten (15 egun gitxienez gonbitea bidaltzen denetik, 167.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz).

Aukeratutako hautagaiek bi kartazal (B eta C) aurkeztu beharko dabez itxita. "B" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEZKO IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA". Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Baldintza Administrazioen Orri hauetako 19. puntuan azaltzen diren, formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko irizpideetarako, beraien eskaintzen balorazio eta ponderaziorako beharrezko den dokumentazioa (zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoa).
- b) Irizpide ez matematiko horien inguruko dosierra.

Kartazal honek ez du, inongo kasutan, lizitatzaileren eskaintza ekonomikorik, horren gaineko dokumentu garrantzizkorik ezta formula matematiko bidez kuantifikagarri diren irizpideen gaineko alderik bere barne edukiko.

"C" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "PROPOSAMENA ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA". Hona hemen "C" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren III. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.
- b) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dossier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko formula matematiko bidez baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro (zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak).
- c) Hala aurreikusten bada, C gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren Eranskinak sartuko dira.
- d) Ez dira onartuko proposamen hauek:
 - 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
 - 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.



- 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
 - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
 - 5) Pleguaren III. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
 - 6) Eskaintzailearentzat biderra ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- e) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorrek izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

22. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako proposamenak jendaurrean irekiko dira, Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.

B kartazala zabalduko da arinago (erizpide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta dagozanean, C kartazala (Proposamena eta erizpide matematikoak) zabalduko da jendaurrean.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deuto esleipen proposamena.

23. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Prezioaz gainera erizpide desberdinak baloratzen direnez, esleipena 2 hilabeteko gehienezko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita, (168. art. prozedura mugatu eta publikizatedun negoziatuetarako xedatutakoari jarraituz).

Edozein kasutan, esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen dan hurrenkerea jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen dan parte hartzaileari, errekerimendua egingo jake, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko (168. artikuluan xedatutakoari jarraituz):

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Baldintza-orri administratibo hauetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak frogatzeko beharrezkotzat jo diren agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, I. eranskina).



Epe horretan egingo ez baleuz, uko egiten dauala ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko jako aitatutako horreek egin daizan. Uko egiten dauanaren, behin behineko bermea Patronatoaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 5 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleituko du. Hala ere, jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira eta lizitazio iragarkirik publikatu bada, esleipendunak aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu beharko ditu. Kitapena egitearekin batera ordaindu beharreko gastu horien kopurua eta ordainketa egiteko epea zehaztuko dira eta esleipenduna behartuta egongo da emandako epean zehaztutako kopurua ordaintzera, edo, kontrako kasuan, hurrengo fakturaren kopurutik gastu horren zenbatekoa konpentsatuko du Udalak. Prozedura negoziatuetan eta lehiaketa-elkarrizketetakoetan, esleipenak finkatu eta zehaztuko ditu kontratuaren behin betiko baldintzak (151.3 artikulua).

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da (151.4 artikuluan xedatutako gutxieneko eduki eta baldintzak jarraituz).

Kontratua kontratazio gaiko helegite berezia ezartzeko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikazioak bidali eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri ahalko dute epe honi dagokionez).

Kasu honetan, kontratazio organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, behin helegitea jartzeko epea helegiterik gabe igaro eta gero, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita gehienez 5 eguneko epean formalizazioa egin dezan.

Gainerako kasuetan, esleipendun eta lizitatzailerek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak honeek burutu beharko dauz:

- Administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazioa web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAOn ere publikatu beharko da (formalizaziotik 48 eguneko gehinezko epean, 154.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

24. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA



Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hasia erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoientatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hasia berehala.

III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

26. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri baino lehen, kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dauden obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne.



113. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsio hau emango ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dauden kasuetan ematen diren 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketekin loturiko kontratazio organoen erabagi eta ebazpenen aurka, horiek esleipena bertan behera uztea edota esleipen berri bat egitea erabaki arren.

Errekurtsio bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzailleek hartutako esleipen akordioak; lehiaketa arautzen duten baldintza agiria, lizitazio iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agiriak; tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute. Prozedura jarraitzea eragozten duten tramite ekintzat hartuko dira lizitatzaileren baztertzea erabakitzen duten Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango dizkiete interesdunek, zuzen ditzaten, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dizkieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsioa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsioaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomi Erkidegoetako arauak zehaztuko dute errekurtsioak ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomi Erkidego horiek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badituzte, toki erregimen eta kontratazio arloari dagokionean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoen kasuetan, toki korporazioa integratzen den Autonomi Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu duten organo berak izango du eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsioa aurkeztea helburu duen edonork aurretiaz adierazi beharko du kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsioaren objektu izango den prozedimentuko egintza zehaztuz. Hori errekurtsioaren aurkezpenerako hurrengo paragrafoan ezartzen den epe barruan egin beharko du.

Kontratazio arloko errekurtsio bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe:

Errekurtsioa pleguen eta gainerako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da beroriek jasotzen direnetik edo lizitatzaille edo hautagaien ezagutzarako beraien eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.



Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate gabeko prozedura negoziatuaren aplikazio egintzen aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoa lizitazio iragarkiaren aurka jartzen denean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtso idazkia kontratazio organoaren erregistroan, edo errekurtsoaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Errekurtso bat aurkeztzen bada, 5 laneguneko epean helaraziko zaie gainerako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta halaber bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsoaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die.

Errekurtsoaren ebazpenak errekurtsoa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartutzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebartziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean.

Errekurtsoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diran auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2014ko irailaren 25ean

